

artikulu nabarmenak artículos destacados



otsaila/febrero



MOSCOSO SÁNCHEZ, David, et al. [¿Qué significa ser activo en una sociedad sedentaria?. Paradojas de los estilos de vida y ocio de la juventud española.](#) *Empiria. Revista de Metodología de Ciencias Sociales*. Madril: Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala, 2014ko urtarril-apirila, 30. zk. , 77-108. or. | Behera dator gazteen jarduera fisikoa, egonean bizi dira, ez dute osasuna zaintzen, haien aisialdia pasibo da, lan eta ikasi eserita egin ohi dute: horrek guztiak ondorioak ditu haien osasun eta ongizatean. Nahiz eta gazteen biziera jardutearekin identifikatu eta ekintzak fisikoak eta kirol arlokoak izan, pasiboak ere izan daitezke, hau da, gazteek gizarte-jarduera eta jarduera intelektual askotan parte har dezakete, gizarteak ontzat ematen duen "egoneko bizitza aktiboa" deritzon horretan, kostu handiak dituen horretan. Gazteek kirola osasun, aisialdi eta ongizatearekin identifikatu ohi dute; kirolgileek premiazat daukate, eta kirolik egiten ez dutenek hainbat arrazoi ematen dituzte euren jarrera agertzeko (motibaziorik eza, gaitasunik eza...). Kirolgileek bizitzaren ikuspegi baikorragoa dute. Kirolak behera egin ez dezan kirol politika heterogeneoak dira beharrezkoak, lehiaketazko kirola barik oinarriko kirola sustatuko dutenak, gazteak harekin identifikatze aldera.



CARBAJO PADILLA, Diego eta María MARTÍNEZ GONZÁLEZ. [El fenómeno de las lonjas juveniles desde una perspectiva sociológica: el caso de Vitoria-Gasteiz.](#) *Inguruak; Soziología eta zientzia politikoaren euskal aldizkaria = Revista vasca de sociología y ciencia política*. Bilbo: Euskal Soziologia Elkarte, 2014, 57-58 zk., 2795-2806. or. | Lokalak erabiltzeak badu harremana egiturazko hainbat faktoreekin: hirietako merkataritzako lokalen itxierarekin, gaztaroaren luzatze eta ezegonkortasunarekin, lagunarteko harremanek irautearekin, eta abarrekin. Lokalei esker gazteek euren aisialdia antolatu ahal dute diru gutxiago gastatuta, lagunartean denbora eman gazteek eurek kudeatutako ingurune pribatu batean. Egoera horretan taldeko partaide direlako sentimendua handia da oso. Badira duela gutxi sortutako lokalak, badira denboran bide egin dutenak eta ia erakundetu direnak, eta, bestetik, erabiltzaile-mota askotarikoa da, bai eta antolatze eta erabiltzeko moduak ere. Lokalek inoiz arazoak izan ditzakete auzoekin, poliziarekin edo errentatzaileekin. Baina arazoak gorabehera, aisialdirako eta kontsumorako elkargune dira, kaleko gizarte-bizitza girotzen dutenak. Lokalen inguruko araudia zehazteke dago oraindik, eta beharrezkoa da alderdi guztiek xede horri begira elkarrekin lan egitea



LASHERAS RUIZ, Rubén eta Begoña PÉREZ ERANSUS. [Jóvenes, vulnerabilidades y exclusión social: impacto de la crisis y debilidades del sistema de protección social.](#) *Zerbitzuan*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2014ko abendua, 137-157. or. | Gazteen lan-egoerak ezaugarri hauek ditu: langabezia, ezegonkortasuna, behin-behinekotasuna, gogoz kontrako aldi baterakoa izatea eta soldaten egoera eskasa. Hori dela eta gazteek prestatzen jarraitzen dute, nahiz eta prestakuntzak lana aurkitzeko bermerik ez eman; hori bai, aukera gehiagorako bide da. Krisialdiak aldi baterako kontratazioak suntsitu ditu eta gazteen egoera kaskartu du gizarte-bazterkeria jasateraino. Hainbat alorretako kideen egoera larria da: lan gabeko gazteak, emantzipatu berri diren gazteen familiak... Bazterkeriari aurre egiteko behar-beharrezkoa da familiek lagundu ahal izatea. Gizarte-babesak lehenasuna ematen die alde zuzeneko ekarpenak egin dituztenei eta, hortaz, gazteenak bazter geratzen dira. Egoeraren gainean hausnar egin behar dugu eta gazteak ez estigmatizatu

PERTSONA
HELBURU

COMPROMISO CON
LAS PERSONAS

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA ETA
KULTURA SAIA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA